ITSASONDOKO UDALA

Iragarkia

2015ko apirilaren 27an egindako bileran Udal Plenoak Itsasondoko KAXINTANE taberna errentan ematea esleitzeko lehiaketa irekia deitzea eta lehiaketa arautuko duten baldintza plegua onartzea erabaki zuen.

Aldi berean lehiaketa publikoa iragartzen da, halare lizitazioa eten egingo da, beharrezkoa bada, pleguen aurkako erreklamaziorik agertuz gero.

Adierazi, interesdun ororentzat baldintza pleguak Udal bulegoan ditugula, beraien ezagutza izan dezaten.

1. Kontratuaren xedea:

Itsasondoko Udalaren Herriko Taberna Nagusia 27ko behean kokatzen den aeta honako lokal hauez osatua dagoena taberna, sukaldea, almazena eta komunak.

2. Kontratuaren iraupena:

Bost urtetarako, sei hilabeteko proba aldiarekin

3. Prezioa:

Hileko errenta 400 euro BEZ barne

4. Fidantza:

Behin behinekoa Ez da eskatzen.

Behin betikoa bi hileko errentaren prezio berekoa dirutan eta 3.000 eurotako bermea.

5. Dokumentazioa eta informazioa eskuratu:

Itsasondoko Udaletxean 943 881170 telefonora deituz, goizeko 8,30etatik 14etara.

6. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua:

a) Itsasondoko Udaletxean 15 egun natural iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontaturik.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza pleguan agertzen dena.

c) Aurkeztu behar den lekua: Itsasondoko udaletxean bulego orduetan.

Itsasondo, 2015ko apirilaren 28an

Alkatea,